

Huheziko ikasle berriak natibo digitalak dira, jatorriz eta erabileraz

2009/02/12

Graduko ikasketa guztietan, Huhezin, **lehen mailako ikasle gehienak 1990ean jaio ziren**, Tim Berners-Lee ikertzaile ingelesak **sarea** asmatu zuenean, alegia World Wide Web delakoa. Beraientzat Internet eguneroko ogia da, eta hazi egin dira amaraunarekin batera. Marc Prensky adituak "**natibo digital**" izendatu zituen gazte hauek, hazi direlako teknologia digitalak erabiltzen, adibidez, ordenagailuak, Internet, eskuko telefonoak eta mp3a.

Jatorriari dagokionez, argi dago Huheziko ikasleak erabat eskutik datozela teknologia digitalarekin, baina zer gertatzen da erabilera kontuan hartuta? Hori jakiteko galdetegi xume bat egin da 1. mailako ikasle batzuekin, **Ikus-entzunezko Komunikazioa** ikasten ari direnak, eta hauek dira galdeketaren emaitzak:

- Sakelako telefonoa daukate: %100
- Messenger darabilte: %100
- Kontu bat dute Tuentin: %90
- Fotolog bat dute: %63
- Kontu bat dute Facebook-en: %36
- Blog bat daukate: %9

Galdetegi osoagoak eta zabalagoak behar dira ondorio zehatzak ateratzeko, baina **adibide gisa** balio du, erakusten baitu **zenbateraino aldatu den ikaslea azken urteotan**, batez ere teknologia berriei dagokienez. Orain **hezitzaileoi dagokie hausnartzea** zenbateraino dauden gertu natibo digitalei irakasteko, eurek ezagun dituzten baliabideak erabilia.

